Andoaingo Udala
HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea: 2026AKN20002

Baldintza Teknikoen Agiria **Pliego de Condiciones Técnicas**

Andoaingo Rock Jaialdiaren antolaketa eta hedapen zerbitzua ematea, jaialdiaren ekoizpena, taldeen kontratazioa, espazioen antolaketa, abegikortasuna, segurtasuna eta zabalkundea barne.

Servicio de organización y difusión del Festival de Rock de Andoain, incluyendo producción del festival, contratación de grupos, organización de espacios, hospitalidad, seguridad y difusión.

Kontratu mota Tipo de contrato	**Zerbitzuak** / Servicios	**Prozedura** Procedimiento	**Irekia** / Abierto	**Esp. kodea** Código Exp.	**2026AKN20002**
Lizitazio elektronikoa Licitación electrónica	☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No	**Tramitazioa** Tramitación	☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente		

EZAUGARRI TEKNIKOAK

1. Kontratuaren xedea

Andoaingo Rock Jaialdia antolatzeko eta hedatzeko zerbitzua ematea, jaialdiaren ekoizpena, taldeen kontratazioa, espazioen antolaketa, abegikortasuna, segurtasuna eta zabalkundea barne, baita APERITIF atala ere.

Kontratua gauzatzean, kontuan hartuta eremu horretan emakume gutxi daudela, genero-berdintasuna, ingurumenarekiko errespetua eta euskararen presentzia bermatuko dira, eta tokiko talentua babestuko da.

Era berean, kontratuaren xedea ere bada euskaraz egindako musikaren sustapena eta hizkuntza-eskubideak harreman guztietan bermatzea, baita udal langileekin ere.

2. Jaildiaren ezaugarriak

Rock jaialdia Andoaingo Nafarroa plazan izango da, 2026ko ekainaren 13an, larunbata.

Jaialdiaren egitaraua honako hauek osatuko dute:
Kartel nagusia:

- Kartelburu banda bat, kalitate egiaztatukoa eta nazioartean erreferentziazkoa.
- Kalitate artistiko egiaztatuko eta Europako musika-esparruko erreferentziazko 2 banda.

PRESCRIPCIONES TÉCNICAS

1. Objeto del contrato

Prestación del servicio de organización y difusión del Festival de Rock de Andoain, incluyendo producción del festival, contratación de grupos, organización de espacios, hospitalidad, seguridad y difusión, así como el apartado APERITIF.

En la ejecución del contrato, teniendo en cuenta la presencia minoritaria de mujeres en este ámbito, se deberá garantizar la igualdad de género, así como el respeto al medio ambiente, la presencia del euskera y respaldar el talento local.

Asimismo, el contrato tiene por objeto la promoción de la música en euskera y garantizar los derechos lingüísticos en todas las relaciones, también con el personal municipal.

2. Características del festival

El festival de Rock tendrá lugar en la Plaza Nafarroa de Andoain, el sábado, 13 de junio del 2026.

El programa del festival estará integrado por:
Cartel principal:

- Una banda cabeza de cartel de contrastada calidad y de referencia en el ámbito musical internacional.
- 2 bandas de contrastada calidad artística y de referencia del ambito musical europeo.

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

- Estatuko musika-esparruko kalitate artistiko eta erreferentziazko talde bat.
- EAEko, Nafarroako Foru Erkidegoko edo Iparraldeko kalitate artistiko eta erreferentziazko talde bat.

APERITIF atala:

- APERITIF atalerako kalitate egiaztatuko 3 banda lokal edo EAEkoak.

Kartel nagusiko banda nagusietako bat batez ere emakumez osatuta egongo da.

Era berean, kartel nagusiko bandetako batek, eta APERITIF ataleko beste batek, gutxienez, euskarazko errepertorioa izan beharko du gehienbat.

Kartel nagusian gutxieneko eremu autonomikoa izango duen banda gehigarri baten proposamena balioetsi egingo da, baldintza administratiboen pleguan jasotzen den bezala.

Egitaraua rock estilo ezberdinetako talde eta/edo bakarlarientzat egongo da zabalik, hala nola, rock & rolla, garage rocka, rock psikodelikoa, rock progresiboa, glam rocka, rock folka, hard rocka, punk rocka, new wave, rock alternatiboa, grungea eta pop-rocka.

Kalitate artistikoa eta koherentzia lehenetsiko dira programazioan eta gizonen eta emakumeen presentzia orekatuan.

Nafarroa plazan kokatutako eszenatoki nagusi baten eta plazetan kokatutako beste hiru punturen artean garatuko da: Zumea plaza, Morea-Andre urdinarena plaza eta Goikoplaza APERITIF atalerako. Udalak leku horiek aldatu ahal izango ditu jaialdiaren beharren eta sor daitezkeen gorabeheren arabera.

- 1 banda de contrastada calidad artística y de referencia del ambito musical estatal.
- 1 banda de contrastada calidad artística y de referencia de la CAV, Comunidad Foral de Navarra o Iparralde.

Apartado de APERITIF:

- 3 bandas locales o de la CAV de contrastada calidad para el apartado APERITIF.

Una de las bandas principales del cartel principal deberá estar compuesta mayoritariamente por mujeres.

Del mismo modo, como mínimo una de las bandas del cartel principal y otra banda del apartado APERITIF, deberá contar con un repertorio mayoritariamente en euskera.

La propuesta de una banda adicional de como minimo ámbito Autonómico en el cartel principal , será objeto de valoración tal y como se recoge en el pliego de condiciones Administrativas.

El programa estará abierto a grupos y/o solistas de diversos estilos de rock como, por ejemplo: Rock&roll, garage rock, rock psicodélico, rock progresivo, glam rock, rock folk, hard rock, punk rock, new wave, rock alternativo, grunge y pop-rock.

Primará la calidad artística y la coherencia en la programación y la presencia equilibrada de hombres y mujeres.

Se desarrollará entre un escenario principal situado en la Plaza Nafarroa y otros tres puntos localizados en las plazas: Zumea plaza, Plaza Morea-Andre urdinarena y Goikoplaza para el apartado APERITIF Estos emplazamientos podrán ser modificados por el Ayuntamiento en función de las necesidades del festival y de las incidencias que puedan surgir.

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

Proiektuari lotuta egiten diren jarduera guztiek genero-ikuspegia jaso beharko dute, gizonen eta emakumeen premia eta interes desberdinak kontuan hartzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatze aldera.

Todas las actividades que se realicen vinculadas al proyecto deberán incorporar la perspectiva de género, en el sentido de tener en cuenta las diferentes necesidades e intereses de hombres y mujeres, con el fin de promover la igualdad de hombres y mujeres.

Rol eta estereotipo sexualak hausten laguntzen duten ekimenak baloratuko dira; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen duten ekimenak.

Se valorarán las iniciativas que contribuyan a romper roles y estereotipos sexuales; iniciativas que fomenten el empoderamiento y la autonomía de las mujeres.

3. Data

Jaialdia Andoainen izango da **2026ko ekainaren 13an, larunbatarekin.**

3. Fecha

El festival tendrá lugar en Andoain el día **13 de junio de 2026, sábado.**

4. Lekua

Nafarroa Plazan egiten den jarduera nagusia 18:00etan hasiko da eta, beranduen, goizaldeko 2:00etan amaituko den egun batean zehar burutuko da.

APERITIF programa, osatzen duten hiru taldeekin, ordutegi hauetan garatuko da:

- taldea, Zumea plaza: 12:00etan.
- taldea, Morea-Andre Urdinarena plaza: 13:00etan
- taldea, Goikoplaza: 14:00etan.

Kontzertu bakoitzak 45' inguruko iraupena izango du eta, beranduen, 15:00etan amaituko da.

4. Lugar

La actividad principal que se desarrolla en Nafarroa Plaza se llevará a cabo a lo largo de una jornada, que comenzará a las 18:00 horas y finalizará, lo más tarde, a las 2:00 de la madrugada.

El programa APERITIF, con los tres grupos locales o guipuzcoanos que los componen, se desarrollará en los siguientes horarios:

- Grupo 1, Zumea plaza: 12:00 horas.
- Grupo 2, Plaza Morea-Andre Urdinarena: 13:00 horas
- Grupo 3, Goikoplaza: 14:00 horas.

Cada concierto tendrá una duración aproximada de 45’ y finalizará, lo más tarde, a las 15:00 horas.

5. Adjudikazio-hartzailearen eginbeharrekoak.

5. Tareas a desarrollar por la empresa adjudicataria.

5.1. Lanen deskripzioa

Lanek honako alderdi hauek hartzen dituzte barne:

5.1. Descripción de los trabajos

Los trabajos abarcan los siguientes aspectos:

A) Kontratuaren xede den jarduera garatzeko beharrezkoak diren alderdi teknikoak, giza alderdiak eta alderdi artistikoak **kudeatzea eta**

A) **Gestión y organización** de los diferentes aspectos tanto técnicos como humanos y artísticos necesarios para el desarrollo de la actividad objeto

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

antolatzea.

Bainu kimikoak: Udalak kamerinoen eremuan jarritako bainu kimikoak kudeatu beharko ditu. Artistek, lantalde teknikoak eta segurtasun-taldeak soilik erabiliko dituzte.

Era berean, jarduera garatzeko eta gauzatzeko behar den guztiaz arduratuko da: baimenen kudeaketa, bidaien kudeaketa, taldeen joan-etorriak, ostatuak, capteringa, abegi ona, afariak, etab.

B) Jaialdia ekoizteko behar den guztiaren **ekarpena**: argi- eta soinu-ekipoak, backline, krokadura elektrikoak, **energia-sorgailuak**, merchandisingerako mahaiak eta aulkiak, Udalak emandako bitartekoak izan ezik (publikoarentzako WC-ak eta kamerinoak, tartekoetarako haima, hesiak, izuaren kontrako hesiak eta agertoki nagusi bat, APERITIFerako agertokiekin batera, horiek beharrezkoak izanez gero, baita korronte-hartuneko konexioen eta sortutako hondakin guztiak gaika biltzeko edukiontzien izapideak ere).

5.2. Zerbitzu osagarriak: Esleipendunak beste zerbitzu batzuk eskaini ahal izango ditu, hala nola merchandising postuak. Zerbitzu horien diru-sarrerak esleipendunarentzat izango dira, eta koherenteak izan beharko dute jaialdiaren filosofiarekin eta Udalaren oniritzia izan beharko dute.

Bestalde, esleipendunak sexu-erasoei buruzko informazio- eta aholkularitza-postu bat edo "puntu morea" gaitu beharko du.

Tokiko merkataritza eta ostalaritzarekin lankidetzan aritzeko proposamenak administrazio-baldintzen pleguan jasotzen den bezala baloratuko dira.

del contrato.

Baños Químicos: Deberá gestionar los baños químicos instalados por el Ayuntamiento en la zona de camerinos. Estos serán para uso exclusivo de los y las artistas, equipo técnico y de seguridad.

Igualmente, se ocupará de todo lo que requiera el desarrollo y realización de la actividad: gestión de permisos, gestión de los viajes, desplazamientos de los grupos, alojamientos, cátering, hospitalidad, cenas, etc.

B) **Aportación** de todo lo necesario para la producción del festival: los equipos de luz y sonido, backline, enganches eléctricos**, generadores**, mesas y sillas para el merchandising, excepto aquellos medios aportados por el Ayuntamiento (WC-s para el público y camerinos, haima para entreactos, vallas, vallas antipánico y un escenario principal, junto a los escenarios para el APERITIF, si estos fueran necesarios, además de la tramitación de las conexiones de toma de corriente y contenedores para la recogida selectiva de todos los residuos generados).

5.2. Servicios complementarios: La adjudicataria podrá ofrecer otros servicios como puestos de merchandising. Los ingresos de estos servicios serán para la entidad adjudicataria, debiendo ser coherentes con la filosofía del festival y contar con el visto bueno del Ayuntamiento.

Por otro lado, la adjudicataria deberá habilitar un puesto de información y asesoramiento sobre agresiones sexuales o **“puntu morea”**.

Las propuestas de colaboración con el comercio y la hostelería local serán objeto de valoración tal y como se recoge en el pliego de condiciones

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

Administrativas.

5.3. Segurtasun zerbitzua: Eszenatokiaren inguruan eta kamerinoetan, jaialdiaren aurretik eta ondoren, hura bermatzeko beharrezkoa den segurtasun-ekipoa kudeatu beharko du. Horrek ez du baztertzen erakunde esleipendunak egokitzat jotzen duen moduan segurtasuna indartzeko aukera, betiere Udalarekin koordinatuta.

5.3. Servicio de seguridad: Deberá gestionar el equipo de seguridad necesario para garantizar la misma durante, antes y después del festival en los alrededores del escenario, así como en la zona de los camerinos. Sin que ello excluya la posibilidad de reforzar la seguridad en los términos que la entidad adjudicataria considere oportunos, y siempre en coordinación con el Ayuntamiento.

Era berean, segurtasun-elementu guztiak (izuaren aurkako hesiak, itxiturak...) behar bezala jarrita daudela ziurtatu beharko du, eta, hala ez bada, jarri.

Asimismo deberá asegurarse de que todos los elementos de seguridad están debidamente colocados y dispuestos (vallas anti-pánico, cerramientos, …) y colocarlos de no ser así.

Segurtasun-langileek genero-indarkeriaren aurrean jarraitu beharreko protokoloari buruzko prestakuntza izan beharko dute.

El personal de seguridad deberá contar con formación sobre el protocolo a seguir ante la violencia de género.

Hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan araututakoa aplikatuz.

Todo ello en aplicación a lo regulado en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

5.4. Prebentzio eta larrialdietako zerbitzua:

5.4. Servicio de prevención y emergencias:

Enpresa esleipendunak osasun-prebentzioko eta larrialdietako zerbitzu bat kudeatu eta gaitu beharko du. Zerbitzu horrek oinarrizko bizi-euskarriko ibilgailu bat (1) eta osasun-larrialdietarako bi (2) teknikari izan beharko ditu gutxienez.

La empresa adjudicataria deberá gestionar y habilitar un servicio de prevención sanitaria y emergencias que estará dotado de al menos un (1) vehículo de Soporte Vital Básico (SVB) y dos (2) Técnicos de Emergencia Sanitaria (TES).

Anbulantzia asistentziala B motakoa izango da, bidean laguntza tekniko-sanitarioa ahalbidetzeko egokitua, oinarrizko bizi-euskarria eta hasierako osasun-laguntza emateko, 836/2012 Errege Dekretuaren arabera.

La ambulancia asistencial será de clase B, acondicionada para permitir asistencia técnico-sanitaria en ruta, destinada a proporcionar soporte vital básico y atención sanitaria inicial, según Real Decreto 836/2012.

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

Zuzkidura hori eszenatokiaren inguruan egongo da une oro jaialdiak irauten duen bitartean.

Dicha dotación estará presente y en los alrededores del escenario en todo momento durante el trascurso del festival.

5.5. Komunikazio eta diseinu grafikoa: plegu honen 9. klausulan jasotakoaren arabera.

5.5. Comunicación y diseño gráfico: De conformidad con lo recogido en la cláusula 9 de este pliego.

5.6. Zehaztutako jardueraren garapena.

Jaialdia agertoki nagusi baten eta Zumea, Morea-Andre urdinarena eta Goikoplaza plazetan kokatutako beste hiru punturen artean egingo da. Plaza horietan izango dira APERITIFen kontzertuak.

5.6. Desarrollo de la actividad determinada.

El festival se desarrollará entre un escenario principal que estará situado en la Plaza Nafarroa y otros tres puntos localizados en las plazas Zumea, plaza Morea-Andre urdinarena y Goikoplaza donde tendrán lugar los conciertos de APERITIF**.**

5.7. Taldeen Kudeaketa: Enpresa esleipendunak artistak eta taldeak proposatu eta hautatuko ditu, egonaldiak, lekualdatzeak eta mota guztietako beharrak kudeatuko ditu, kudeaketa tekniko osoa eginez (rider teknikoak eta abegitasunekoak eskatu eta negoziatuko ditu, soinu-probak eta entseguak koordinatuko ditu, eta abar), eta horren guztiaren harreraz eta ekoizpenaz arduratuko da.

5.7. Gestión de grupos: La empresa adjudicataria propondrá y seleccionará artistas y grupos, gestionará sus estancias, traslados y necesidades de todo tipo realizando una gestión técnica íntegra (solicitar y negociar los rider técnico y de hospitalidad, coordinación de pruebas de sonido y ensayos, etc), así como responsabilizarse de la acogida y producción de todo ello.

Udalak beretzat gordetzen du kontratu horiek aurkez dakizkion eskatzeko ahalmena.

El Ayuntamiento se reserva la facultad de solicitar que se le presenten dichos contratos.

Programan parte hartuko duten taldeen ezaugarriak deskribatzen dituen txostena aurkeztea, administrazio-baldintzen pleguan deskribatzen diren baldintzen arabera.

Presentar un dossier en el que se describan las características de los grupos que intervendrán en el programa, de acuerdo con las condiciones que se describen en el pliego de condiciones administrativas.

Aurreikusitako talderen batek azkenean ezin badu jardun, kalitate eta ezaugarri bereko beste talde batek ordezkatu beharko du.

En caso de que alguno de los grupos previstos finalmente no pueda actuar, deberá ser sustituido por otro grupo de similares calidad y características.

6. Udalaren konpromisoak

Andoaingo Udalak honako ekarpen hauek egingo ditu:

6. Compromisos por parte del Ayuntamiento

El Ayuntamiento de Andoain aportará:

- WC-s para el público y para la zona de

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

- WC-ak publikoarentzat eta kamerinoentzat,
- eszenatokiaren aurrealde osoa estaltzen duten hesi antipanikoak.
- 2 m-ko altuerako 20 hesi, barrutia ixteko.
- Oinarrizko 50 hesi.
- 3 x 3 m-ko haima edo karpa, funtzioen arteko atsedenaldietarako
- gutxienez 16 x 12 x 1,8 m-ko agertoki nagusi estalia eta sartzeko arrapala duena.
- APERITIFerako 3 agertoki, beharrezkoak badira.
- Korronte-hartuneko konexioak,
- sortutako hondakin guztiak gaika biltzeko edukiontziak.
- 10m2-ko tarima, ramparekin, mugikortasun murritza duten pertsonentzako

Udalak, gainera, **3 kamerino** jarriko ditu. gizonen eta emakumeen beharrizanei erantzuteko gaituta egongo dira.

7- Soinu-bolumena

Enpresa esleipendunak probetako eta itunetako dezibelioak zaratari buruzko udal-ordenantzetan ezarritakora egokitzen direla bermatuko du, mugatzaileak edo beste baliabide batzuk erabiliz.

Enpresa esleipendunak berehala mugatu beharko du soinuaren bolumena, Udalak hala eskatuz gero.

8- Etetea

Jaialdia, oro har, ezinbesteko arrazoiengatik, ezinbesteko kasuak: larrialdi klimatikoak, sanitarioak, terrorismoa edo segurtasun-publikoa. Eten behar bada, erabakia Udalak eta esleipendunak adostuta hartuko da, eta bi aldeek sinatutako akta jasoko da. Hala eta guztiz ere, akordiorik ez badago, Udalak, bere kabuz,

camerinos,

- vallas antipánico que cubran todo el frontal del escenario.
- 20 vallas de 2 m de altura para el cerramiento del recinto.
- 50 vallas básicas.
- una haima o carpa de 3 x 3m para descansos entre funciones
- un escenario principal cubierto de al menos 16 x 12 x 1,8 m y con rampa de acceso.
- 3 escenarios para APERITIF, si estos fueran necesarios.
- Las conexiones de toma de corriente,
- contenedores para la recogida selectiva de todos los residuos generados.
- Tarima de 10m2 con rampa para personas con movilidad reducida.

El Ayuntamiento aportará, además, **3 camerinos**. Estos estarán habilitadosy cubrir las necesidades de hombres y mujeres.

7- Volumen de sonido

La empresa adjudicataria garantizará que los decibelios tanto de las pruebas como de los conciertos se ajusten a lo establecido en las ordenanzas municipales sobre ruido, mediante el uso de limitadores u otros medios.

La empresa adjudicataria deberá limitar inmediatamente el volumen de sonido a petición del Ayuntamiento, si así se solicita.

8- Suspensión

En caso de que el festival en su conjunto se tenga que suspender por causas de fuerza mayor, entendiendo como fuerza mayor: emergencias climaticas, sanitarias, terrorismo o de seguridad pública. La decisión se tomará de mutuo acuerdo entre el Ayuntamiento y la adjudicataria levantando un acta firmada por ambas partes. Si pese a ello no

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

inguruabarrak ikusita, ekitaldia bertan behera utzi ahal izango du.

existiera acuerdo, el Ayuntamiento, unilateralmente, en vista de las circunstancias podrá suspender el evento.

Bi kasuetan, Udalak enpresa esleipendunari ordainduko dizkio dagoeneko egindako gastuak edo itzulgarriak ez direnak, justifikazio bidez, baldin eta gertaerak ezeztatzeko aseguruak estaltzen ez baditu.

En ambos casos, el Ayuntamiento abonará a la empresa adjudicataria los gastos ya realizados o aquellos que no puedan ser reembolsables, mediante justificación, y no fueran cubiertos por su seguro de cancelación de eventos.

Halaber, ezinbesteko arrazoiengatik edo talderen batek azkenean jaialdira joaterik ez badu, enpresa esleipendunak antzeko kalitatea eta ezaugarriak dituen beste batekin ordezkatuko du.

Así mismo, en el caso de que por causas de fuerza mayor o alguno de los grupos no pueda acudir finalmente al festival, la empresa adjudicataria lo sustituirá por otro de similar calidad y características.

Adjudikaziodunak ekitaldiak ezerezteko aseguru bat sinatuta izan beharko du. Aseguru horrek honako baldintza hauek hartuko ditu barne: meteorologikoak, covid osasun-krisiaren ondoriozkoak, eta abar.

La adjudicataria deberá haber suscrito un seguro de cancelación de eventos, que contemple como circunstancias cubiertas: las meteorológicas, las derivadas de la crisis sanitaria covid, etc.

9.- Publizitatea eta komunikazioak

Adjudikaziodunak jaialdiaren irudiaren diseinu orokorra egiteko proposamena egingo du (kartela barne), jaialdiaren orain arteko irudiaren ibilbidea, hizkera ez-sexista, estereotipoen haustura eta euskara lehenetsita.

9.- Publicidad y comunicaciones

La adjudicataria realizará una propuesta de diseño general de la imagen del festival, incluido el cartel, priorizando la trayectoria de la imagen del festival, el lenguaje no sexista, la ruptura de estereotipos y el euskera.

Emandako irudiarekin ados ez badago, Udalak eskubidea izango du aldaketak eskatzeko edo beste irudi berri bat eskatzeko.

En caso de desacuerdo respecto a la imagen ofrecida el Ayuntamiento se reserva el derecho de solicitar modificaciones o a solicitar otra imagen nueva.

Era berean, enpresa esleipendunak sare sozialetan zabaltzeko zabalkunde-proposamenak egingo ditu, erreferentziazko webguneetan, komunikabideetan eta erakunde esleipendunak egokitzat jotzen dituen sustapen-proposamen guztietan.

Así mismo, la empresa adjudicataria elaborará propuestas de difusión en redes sociales, webs de referencia, medios de comunicación y cuantas propuestas de promoción considere la entidad adjudicataria.

Hori administrazio-baldintzen pleguan jasotzen

Esto será objeto de valoración tal y como se recoge

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

den bezala baloratuko da.

Esleipendunak diseinu-proposamen bat egingo du, gutxienez, hedapeneko eta karteleko elementu grafikoetarako. Proposamen horrek Udalak komunikazioari buruz emandako arauak beteko ditu, eta Udalaren oniritzia izan beharko du. Komunikazio publiko guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, eta, bigarren kasu horretan, euskarari emango dio lehentasuna, eta Udalaren logotipoa izango dute beti. Era berean, ikus-entzunezko elementu guztiek, sustapenekoek zein laburpenekoek, Andoaingo Udalaren logotipoa izan beharko dute.

Azkenik, esleipendunak ezin izango du jaialdiarekin edo Andoaingo Rock Jaialdiarekin lotutako web orririk, profilik edo sare sozialetan orririk jarri Udalaren berariazko baimenik gabe. Baimen hori ematen bada, komunikazioarekin eta publizitatearekin gertatzen den bezala, Udalarekin ere koordinazioa egongo da hedabide horietako argitalpenei dagokienez, eta jaialdiaren sustapenarekin lotura zuzena duten edukiak baino ez dira baimenduko. Kasu horiek aplikatuko zaizkie, halaber, kontratu hau esleitu aurretik dauden web-orriei, profilei edo sare sozialetako orriei.

Era berean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo da, bai proiektua gauzatzeko jarduera propioan, bai kontratua gauzatzen den bitartean sortzen diren komunikazio- eta hedapen-agiri edo -euskarri guztietan.

Enpresa esleipendunak, jaialdiak irauten duen bitartean, **jendeari zuzendutako iragarkiak izango ditu, zuzenean edo audio-grabazioen bidez, sortutako hondakinak plazan adierazitako eta banatutako edukiontzietan uzteko eskatzeko**, bai

en el pliego de condiciones administrativas.

La adjudicataria hará, al menos, una propuesta de diseño para los elementos gráficos de difusión y de cartel que seguirá las normas del Ayuntamiento sobre comunicación y que deberá contar con el visto bueno de éste. Se dará a conocer todas las comunicaciones públicas en euskera o euskera y castellano, dando prioridad en este segundo caso al euskera, e incorporarán, en todo caso el logotipo del Ayuntamiento. Asimismo, todos los elementos audiovisuales, tanto de promoción como de resumen, deberán incorporar el logotipo del Ayuntamiento de Andoain.

Por último, la adjudicataria no podrá poner en marcha páginas web o perfiles o páginas en redes sociales relacionadas con el festival o la marca Andoaingo Rock Jaialdia sin el consentimiento expreso del Ayuntamiento. En caso de que se diera este consentimiento, al igual que ocurre con la comunicación y la publicidad, también habrá una coordinación con el Ayuntamiento en cuanto a las publicaciones en estos medios, y solo se permitirán contenidos que tengan una relación directa con la promoción del festival. Estos supuestos también serán de aplicación a las páginas web, perfiles o páginas en redes sociales que existan previamente a ala adjudicación de este contrato.

Asimismo, se hará un uso no sexista del lenguaje, tanto en la actividad propia para llevar a cabo el proyecto como en toda la documentación o soportes de comunicación y difusión que se produzca durante la ejecución del contrato.

La empresa adjudicataria, a lo largo del desarrollo del festival, **incluirá anuncios dirigidos al público, directamente o a través de grabaciones de audio, para solicitar que depositen los residuos generado**s en los contenedores indicados y

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

eta **genero-indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako mezuak** ere. Iragarki hauek guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, eta, bigarren kasu horretan, euskarari emango dio lehentasuna.

Euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez egiten diren komunikazioetan, eta batez ere ahoz egiten direnetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

10.- Lankidetzak

Lizitatzaileek lankidetza-plan bat aurkeztu beharko dute, jaialdiaren kontzertuak, jarduerak eta azpiegitura indartzeko.

Zentzu horretan, tokiko ostalaritzarekin eta merkataritzarekin egindako kolaborazioak baloratuko dira, baldintza administratiboen pleguan deskribatzen den bezala.

Lankidetza horiek agiri honetako helburuak bermatu beharko dituzte, genero-berdintasunari eta ingurumenari dagokienez, Andoaingo Udaleko Kultura Sailaren lan-ildoarekin eta ikuspegiarekin koherenteak izan beharko dute, eta Udalaren oniritzia lortu beharko dute.

11.- Giza baliabideak

Lizitatzaileak jaialdiaren antolakuntzan parte hartuko duen lantaldea aurkeztuko du. Lantalde hori administrazio-baldintzen agirian ezarrita dagoen bezala baloratuko da. Pertsona-talde horren barruan, gutxienez, honako hauek izendatuko dira:

- Zerbitzuaren arduradun-funtzioak dituen bat, erabakiak hartuko dituena eta Udalarekin hitz egingo duena. Baloratuko da pertsona horrek antzeko ezaugarriak dituzten jaialdiak antolatzen esperientzia izatea eta esperientzia izatea musikaren

distribuidos en la plaza, así como **mensajes relacionados con la violencia de género** y las **agresiones sexuales**. Dará a conocer todos estos anuncios en euskera o euskera y castellano, dando prioridad en este segundo caso al euskera.

En las comunicaciones que se realicen en euskera, castellano e inglés o francés, y sobre todo en las realizadas oralmente, se le dará prioridad al euskera.

10.- Colaboraciones

Los licitadores deberán presentar un plan de colaboración con el objetivo de reforzar los conciertos y las actividades del festival.

En este sentido, se valorarán las colaboraciones con la hostelería y el comercio local, tal y como se describe en el Pliego de condiciones administrativas.

Estas colaboraciones tendrán que garantizar los objetivos en cuanto a igualdad de género y medio ambiente del presente pliego, ser coherentes con la línea de trabajo y el enfoque del departamento de Cultura del Ayuntamiento Andoain y tendrán que obtener el visto bueno del Ayuntamiento.

11.- Medios humanos

El licitador presentará el equipo de trabajo que participará en la organización del festival que será objeto de valoración tal y como viene establecido en el pliego de condiciones administrativas. Dentro de este equipo de personas se nombrará como mínimo:

- una con funciones de responsable del servicio, que será la que tome las decisiones y la interlocutora con el Ayuntamiento. Se valorará que esta persona cuente con experiencia en la organización de festivales de similares características y que cuente con experiencia en

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

esparruan emakumeen presentzia sustatzen, edo lagun egiten dion lantaldean pertsona bat izatea, eta gutxieneko euskara-maila C1en baliokidea izan beharko du.

- Sustapen- eta zabalkunde-arduradun bat, hedabideekiko harremanak eta sustapenak egiteaz arduratuko dena. Baloratuko da pertsona horrek antzeko ezaugarriak dituzten jaialdiak sustatzen eta zabaltzen esperientzia izatea eta esperientzia izatea musikaren esparruan emakumeen presentzia sustatzen, edo lagun egiten dion lantaldean pertsona bat izatea, eta C1en baliokidea den gutxieneko euskara-maila izan beharko du.

el fomento de la presencia de mujeres en el ámbito musical, o que cuente con una persona en el equipo que le acompañe y deberá contar con un nivel mínimo de euskera equivalente a C1.

- una con funciones de responsable de promoción y difusión, que será la persona encargada de realizar las promoción y relaciones con los medios. Se valorará que esta persona cuente con experiencia en la promoción y difusión de festivales de similares características y que cuente con experiencia en el fomento de la presencia de mujeres en el ámbito musical, o que cuente con una persona en el equipo que le acompañe y deberá contar con un nivel mínimo de euskera equivalente a C1.

Era berean, arduradunaren ordezko bat izendatuko da, eta arduradun nagusia ez dagoenean egingo ditu bere lanak.

Asimismo se nombrará una persona sustituta de la persona responsable, que realizará sus labores en ausencia de la principal.

12.- Erantzukizun zibileko asegurua

Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko poliza bat formalizatu beharko du, pertsonei edo instalazioei, heriotza barne, sor dakiekeen edozein kalte estaltzeko, 300.000 euroko gutxieneko zenbatekoarekin.

12.- Seguro de responsabilidad civil

La empresa adjudicataria deberá formalizar una póliza de responsabilidad civil que cubra cualquier daño que se pueda ocasionar a las personas o las instalaciones, incluida la defunción, por un importe mínimo de 300.000 euros.

13.- Kontratuaren jarraipena

Udalak eta enpresa esleipendunak kontratuaren jarraipena egiteko bilerak zehaztuko dituzte, antolaketa-gaietan ahalik eta koordinazio onena ziurtatuz. Nolanahi ere, Udalak bilerara deitu ahal izango dio enpresa esleipendunari, kontratuaren jarraipen egokia egiteko beharrezkotzat jotzen duen guztietan.

13.- Seguimiento del contrato

El Ayuntamiento y la empresa adjudicataria definirán las reuniones para el seguimiento del contrato, asegurando así la mejor coordinación posible en cuestiones organizativas. En cualquier caso el Ayuntamiento podrá llamar a reunión a la empresa adjudicataria cuantas veces considere necesario para el correcto seguimiento del contrato.

14. Berdintasuna

14. Igualdad

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

14.1. **Genero ikuspegia:** Proiektuari lotuta egiten diren jarduera guztiek genero-ikuspegia jaso beharko dute, gizonen eta emakumeen premia eta interes desberdinak kontuan hartzeko, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatze aldera.

Rol eta estereotipo sexualak hausten laguntzen duten ekimenak baloratuko dira; emakumeen ahalduntzea eta autonomia sustatzen duten ekimenak.

Jaialdia osatzen duten elementuak muntatzean (kamerinoak, komunak...), segurtasunik gabekotzat har daitezkeen eremuak sortzea saihestuko da.

Era berean, hizkuntzaren erabilera ez-sexista egingo da, bai proiektua gauzatzeko jarduera propioan, bai kontratua gauzatzen den bitartean sortzen diren komunikazio- eta hedapen-agiri edo -euskarri guztietan.

Bestalde, esleipendunak erasoen aurkako informazio-postu bat edo "puntu morea" jarri beharko du.

Segurtasun-langileek genero-indarkeriaren aurrean jarraitu beharreko protokoloari buruzko prestakuntza izan beharko dute.

Enpresa esleipendunak, jaialdiak irauten duen bitartean, publikoarentzako iragarkiak izango ditu, besteak beste, genero-indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako mezuak.

Hori guztia Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren

14.1. **Perspectiva de género:** Todas las actividades que se realicen vinculadas al proyecto deberán incorporar la perspectiva de género, en el sentido de tener en cuenta las diferentes necesidades e intereses de hombres y mujeres, con el fin de promover la igualdad de hombres y mujeres.

Se valorarán las iniciativas que contribuyan a romper roles y estereotipos sexuales; iniciativas que fomenten el empoderamiento y la autonomía de las mujeres.

En el montaje de los elementos que integran el festival (camerinos, baños...) se evitará la generación de zonas que puedan ser percibidas como inseguras.

Asimismo, se hará un uso no sexista del lenguaje, tanto en la actividad propia para llevar a cabo el proyecto como en toda la documentación o soportes de comunicación y difusión que se produzca durante la ejecución del contrato.

Por otro lado, la adjudicataria deberá habilitar un puesto de información contra agresiones o “puntu morea”.

El personal de seguridad deberá contar con formación sobre el protocolo a seguir ante la violencia de género.

La empresa adjudicataria, a lo largo del desarrollo del festival, incluirá anuncios dirigidos al público, entre los que se incluirán mensajes relacionados con la violencia de género y las agresiones sexuales.

Todo ello en aplicación a lo regulado en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan araututakoa aplikatuz.

Violencia Machista contra las Mujeres

14.2. **Berdintasun-irizpidearen justifikazioa**

14.2. **Justificación del criterio de igualdad**

Jaialdian parte hartuko duten taldeetan emakumeen presentzia baloratuko da, aipatutako 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2., 3. eta 22. artikuluetan batez ere araututakoa aplikatuz.

Se valorará la presencia femenina en los grupos que participarán en el festival, en aplicación de lo regulado principalmente en los artículos 2, 3 y 22 del mencionado Decreto Legislativo 1/2023.

Programa rock estilo desberdinetako talde eta/edo bakarlariei irekita egongo da, kalitate artistikoari eta programazioan koherentziari eta gizon eta emakumeen presentzia orekatuari lehentasuna emanez.

El programa estará abierto a grupos y/o solistas de diversos estilos de rock, primando la calidad artística y la coherencia en la programación y la presencia equilibrada de hombres y mujeres.

Kartel nagusiko bandetako bat batez ere emakumez osatuta egon beharko du.

Una de las bandas del cartel principal deberá estar compuesta mayoritariamente por mujeres.

15. Hizkuntzen trataera

15. Tratamiento de las lenguas.

a) Langileen hizkuntza gaitasuna

Eskatutako profila: C1, zerbitzuaren arduraduna eta txostenak aurkeztu behar dituena, hau da, Udalarekin harremana izango duena; C1, jaialdiaren sustapenaz eta zabalkundeaz arduratuko dena; B2, musika-taldeekin eta hornitzaileekin harremana izango duten langileak.

a) Competencia lingüística del personal

Perfil exigido: C1, quien sea responsable del servicio y tenga que presentar informes, es decir, quien vaya a tener relación con el Ayuntamiento; C1, quien sea la persona encargada de la promoción y difusión del festival; B2, el personal que va a tener contacto con grupos musicales y proveedores.

b) Herritarrekiko harremanak

b) Relaciones con la ciudadanía

Ahoz: zerbitzua ematen duenean, enpresa kontratistan zerbitzua ematen ari den pertsonak euskaraz ekingo dio elkarrizketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du.

Verbalmente: cuando preste el servicio, la persona que esté prestando el servicio en la empresa contratista iniciará la entrevista en euskera y posteriormente continuará en el idioma elegido por el usuario.

Idatziz: enpresak zerbitzua ematerakoan herritarren esku jartzen dituen ziurtagiriak, txartelak, oharrak eta gainerako idatzi guztiak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango ditu ezagutzera, eta,

Por escrito: La empresa dará a conocer todos los certificados, tarjetas, avisos y demás escritos que ponga a disposición de los ciudadanos a la hora de prestar el servicio en euskera o en euskera y

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

bigarren kasu horretan, euskarari emango dio lehentasuna.

Zerbitzuaren hartzaileak euskara ulertzen duten euskal hiztunak diren kasuetan (ikastetxeetako langileak edo kultur elkarteetako kideak, esaterako) zerbitzua euskaraz emango da.

c) Hizkuntza paisaia

Espazio publikoetan, jendaurrean, jartzen diren kartelak, seinaleak nahiz oharrak gutxienez euskaraz egongo dira. Ele bietan adierazitako kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

d) Udalarekiko harremanak

Enpresak harreman jarraia eta aurrez aurrekoa badu udal langileekin, euskaraz egiteko gaitasuna duen enpresako langilea izendatuko du.

Bilerak: enpresa adjudikazio hartzaileak bilera kudeatzeko jartzen duen pertsonak euskaraz egiteko gaitasuna izango du. Bileran parte hartuko duten kide guztiak euskaldunak badira, bilera euskaraz egingo da; ulermen maila bermatua dagoenean, nagusiki euskaraz egingo da.

Idatziz: kontratuan zehar eratzen diren eta Udalari entregatzen zaizkion agiriak, hau da, azterlan, txosten, proiektu, aurrekontu, faktura eta bestelako agiriak, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

16. Irudi-eskubideak

Udalak ezin izango du enpresa esleipendunaren irudia, izena edo logotipoa duen merkantziarik edo produkturik merkaturatu jaialdiaren aurretik, jaialdiaren zehar edo ondoren, bere kabuz edo

castellano, dando prioridad en este segundo caso al euskera.

En los casos en los que las personas destinatarias del servicio sean vascoparlantes que entiendan euskera (personal de centros escolares o miembros de asociaciones culturales, por ejemplo) el servicio se prestará en euskera.

c) Paisaje lingüístico

Los carteles, señales o avisos que se pongan al público en los espacios públicos estarán al menos en euskera. En los casos expresados en ambas lenguas, se dará prioridad al euskera.

d**) Relaciones con el Ayuntamiento**

Si la empresa mantiene una relación continuada y presencial con los trabajadores municipales, designará al trabajador de la empresa con capacidad para expresarse en euskera.

Reuniones: la persona que la empresa adjudicataria ponga para gestionar la reunión tendrá la capacidad de hacerlo en euskera. En el caso de que todos los miembros que participen en la reunión sean euskaldunes, la reunión se realizará en euskera; cuando el nivel de comprensión esté garantizado, se realizará principalmente en euskera.

Por escrito: los documentos que se formen durante el contrato y se entreguen al Ayuntamiento, es decir, estudios, informes, proyectos, presupuestos, facturas y otros documentos, se elaborarán en euskera o en las dos lenguas oficiales.

16. Derechos de imágen

El Ayuntamiento no podrá, por sí o a través de terceras personas, comercializar antes, durante o después del festival ninguna mercancía o producto con la imagen, el nombre o el logotipo de la

ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

beste pertsona batzuen bitartez.

17. Zergak

Enpresa esleipendunaren edo, hala badagokio, kontratatutako banden kontura izango dira bai Aurreikuspen eta Gizarte Segurantzako zerga-betebeharrak, bai lan-arriskuen prebentzioari dagozkionak.

Egile- eta interpretazio-eskubideen ordainketa ere esleipendunaren kontura izango da.

Eginbidea: Nik, idazkariak, egiten dudana aditzera emateko Baldintza Teknikoen Agiri hau Alkateak onartu duela, 2026ko martxoaren 18ko 725/2026 zenbakidun Ebazpen bidez.

empresa adjudicataria**.**

17. Impuestos

Será a cargo de la empresa adjudicataria o, en su caso, de las bandas contratadas, tanto las obligaciones tributarias de Previsión y Seguridad social como relativas a la prevención del riesgos laborales.

Será también a cargo de la adjudicataria el pago de derechos de autor y de interpretación.

Diligencia: Que la extiendo yo, el Secretario de la Corporación, para hacer constar que el presente Pliego de Condiciones Técnicas ha sido aprobado por el Alcalde mediante Resolución n.º 725/2026, de 18 de marzo de 2026.

Idazkaria / El Secretario

Goikoplaza z/g • 20140 ANDOAIN • IFZ P2001000E • Tf: 943 30 08 30 • DIR3: L01200090 • ataria@andoain.eus

EKS | CSV: ESKU9ae9b10f-5ff3-4b52-b134-352d55c88708
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910